



**CHANGE
ENVIRONMENT**

SARRERA

Gizakiaren jarduerak eragindako klima- eta ingurumen-aldaketak¹ munduko krisi larrienak ekartzen ari dira eta gure belaunaldi gazteenek badakite. Pozgarria da ikustea gazteak gero eta gehiago mugitzen direla ingurumena babestu eta klima-aldaketaren aurka borrokatu beharraz kontzientziatzeko. Askotan entzuten dugu krisi horien kausei buruz, bai eta izan daitezkeen konponbideez ere. Baina ikasleek eskolan gai horiek lantzen badituzte ere, bada elementu garrantzitsu bat askotan behar bezala azpimarratzen ez dena: mundu osoko pertsonak eta komunitateak jada ikusten ari dira klima eta ingurumen aldaketek beren bizitzak hondatzen dituztela eta horien ondorioz beren etxetik alde egin behar izaten ari diren milioika pertsona daude. Mundu osoko migrazio-ereduei eragiten die dagoeneko klima-aldaketak, eta gero eta gehiago eragingo du etorkizunean: NBEk 200 milioi errefuxiatu klimatiko aurreikusten ditu 2050erako. Ingurumenari lotutako migrazioa fenomeno konplexua da, askotariko kausak dituena atzean, eta ulermen sakonagoa eta gogoeta handiagoa behar dute gazteek oso politizazio eta polarizazio altuko gai horiei aurre egiteko prestatuko badira.

CHANGE Environment ikastaroa **diseinatu dugu hain zuzen 12 eta 18 urte** bitarteko ikasleei ingurumen-aldaketa eta giza migrazio gaiak eta haien arteko interakzioak azaltzeko.

Ikastaro honek marko bat eskaintzen die irakasleei gai horiek beren ikasleekin azter ditzaten. Horretarako jarduerak, bideoak, baliabide interaktiboak, datu zientifikoak, pertsonen istorioak eta beste iturri batzuk eskaintzen ditugu, ingurumen-aldaketen ondoriozko desplazamenduen funtsezko gaiak lantzeko. Gainera, ikastaroa oinarrizko hainbat trebetasun ikasleekin lantzeko diseinatu da, hala nola pentsamendu kritikoa, enpatia eta ikerketarako nahiz eztabaidarako trebetasunak.

Ikastaroa lau etapatan banatzen da: etapa bakoitzak bi fitxa ditu, eta fitxa bakoitza ordu akademiko batean osatzeko diseinatuta dago. Material

¹ Material hauetako “ingurumen-aldaketa” kontzeptuaren erabilera argitzeko oharra. “Ingurumen-aldaketa” esaten diogu ingurumenaren aldaketa edo perturbazio bati, barne direla, besteak beste, hondamendi naturalak, gizakiaren interferentziak edo animalien interakzioa. Kontzeptuak klimaren aldaketak jasotzen ditu, gizakiaren biziraupenarekin eta jarduera ekonomikoarekin lotutako hainbat elementu, eta beste alderdi batzuk ere bai, esaterako, lurzorua erabilera, biodibertsitatearen galera, natur ondasunen gehiegizko ustiapena edo kutsadura. Kontzeptua lotuta dago, adibidez, ingurumen-inpaktuarekin, aldaketa globalarekin edo aldaketa ekologikoarekin. Hain zuzen ere, material hauetan “ingurumen-aldaketa” erabiltzen dugunean, ikuspegi zabalago horretaz ari gara, eta ez soilik “klima-aldaketaz”: kontzeptu lotuak dira, baina ez baliokideak.

pedagogikoa osotasunean zortzi ordukoa da. Etapa bakoitza bere baitan landu badaiteke ere, besteekin lotuta dago erabat. Ibilbide argi bat dago ikasleek, ikastaroan zehar aurrera egin ahala, gaiaren gaineko ezagutzak eta trebetasunak sakondu ditzaten. Materiala malgua da eta irakasleek euren beharretara egokitu dezakete, baina etapa guztiak osatzea gomendatzen dugu, ikas-esperientzia ahalik eta osoena bermatzeko.

Ikastaro hau diziplina desberdinetako hezitzaileentzat diseinatuta dago, eta material hauetan ingurumen-aldaketari, klima-larrialdiari eta migrazioari buruz irakasteko behar adina orientazio eskaintzen saiatu gara. Glosario erantsi bat ere badago, ikastaro honetan erabilitako termino gakoei buruzko informazio gehiago ematen duena.

3. eta 4. etapetan kanpoko eragileekin topaketak eta ekintzak proposatzen dira, ikastaroaren ikuspegi desberdinak eztabaidatzeko. Irakasleek kontaktua egin beharko dute beren CHANGE Environment koordinatzailearekin, elkartruke jarduerak martxan jartzen laguntzeko.

Ondoren, etapa desberdinen xehetasunak aurkezten ditugu, metodologia, gai gakoak eta proposamen praktikoak besteak beste.

1. etapa:

- Etapa honetan migrazio eta ingurumen-aldaketa gaietara hurbiltzeko zenbait kontzeptu gako aztertzen dira, horiei buruzko oinarritzko gertaera eta datuak eskainiz.
- Ingurumen-aldaketaren kausa eta ondorioetan gertatzen diren desberdinkeriak ere aztertzen dira, eta migrazioa behartutako pertsonen bizipen eta ikuspegiak aurkeztu.
- 1. fitxan ikasleak jarduera parte hartzaileetan murgilduko dira eta gaiei buruz bereziki prestatu ditugun irakurgaiak taldean aztertuko dituzte.
- 2. fitxan ikasleak aurreko urratsean oinarrituz eta online baliabide interaktiboak erabiliz gai gakoei buruzko hasierako ikerketak egingo dituzte.

2. etapa:

- Etapa hau 1. etapen lortutako ezagutzetan oinarritzen da, eta ikasleei aukera ematen die sakonago aztertzeko nola ingurumen-aldaketak era desberdinetako desplazamenduak eragiten dituen hainbat komunitate eta testuingurutan, garapen moteleko hondamendien bidez (itsas mailaren igoera, adibidez) edo bat-bateko gertaeren bidez (uholdeak besteak beste).
- Etapa honetan pentsamendu kritikoaren funtsezko trebetasunak garatuko dira, ikasleei iturri desberdinak eta dilema moral eta etikoak

planteatuz, eta horiek eztabaidatzeko eta aztertzei aukera emanez. Halaber, enpatiarako trebetasunak garatuko dira, mundu osoan ingurumen-aldaketak kaltetu dituen pertsonen ikuspegiak eta istorioak aurkeztuta.

- 3. fitxan, ingurumen-aldaketak ukitutako komunitate eta testuinguru desberdinetako kasuak aztertuko dituzte ikasleek, eta era horretan ikasiko dute pertsona ezberdinak arazo horiek modu ezberdinean ukitzen dituztela.
- 4. fitxan, ikasleek aintzat hartu beharko dute aztertzen ari garen egoerak eta gatazkak oso gutxitan izaten direla zuriak edo beltzak; aitzitik, sarritan, dilema etiko edo moral bat izaten da tartean, eta balioen, printzipioen eta interesen arteko oreka kudeatu beharko dute.

3. etapa:

- 3. etapa ikastaroaren funtsezko zatia da, eta aukera emango die ikasleei 1. eta 2. etapetan ikasitakoa zabaltzeko, jatorri ezberdinetako pertsonekin elkartu, hitz egin eta haiengandik ikasi ahal izango baitute.
- Etapa honetan ikasleek beren prestakuntza osatuko dute ezagutzak, ikuspegiak eta iritziak trukatzuz ikastetxe, herrialde edota jatorri desberdinetako ikasleekin, ingurumen-aldaketari eta migrazioari buruz. Horrek aukera emango die beren ikuspegi eta testuinguru propioak modu kritikoagoan aztertzei eta beste testuinguru bateko pertsonekin topo egiteko.
- 5. fitxan ikasleek eta irakasleek gogoeta egingo dute beren testuinguruaz eta ikastaroan ikasi dituzten gauzei buruz, egokitu zaizkien edo garrantzitsuak iruditzen zaizkien gaiei buruz; ikastetxe, komunitate edota herrialdearen benetako egoera aztertuko dute ingurumen-aldaketari eta migrazioari dagokienez.
- 6. fitxan testuinguru desberdin bateko ikasleekin topo egingo dute. Trukea, testuinguruaren eta eskura dauden baliabideen arabera modu ezberdinean egingo da: online talde txikietan banatuta, online aurkezpen egituratu baten bidez, edo gutun-truke baten bidez.
- Irakasleek CHANGE Environment proiektuaren arduradunarekin harremanetan jarri beharko dute etapa hau antolatzei laguntza eskuratzeko.

4. etapa:

- 4. etapak aukera ematen die ikasleei orain arte ikasitakoa praktikan jartzeko eta baliabideak, inspirazioa eta egitura eskaintzen dizkie ingurumen-aldaketa eta migrazio behartuekin zerikusia duten arazo eta gatazka batzuen aurrean irtenbideak bilatu eta mobilizatzeko.
- Etapa honek aukera emango die ikasleei inpotentzia ekidin eta landu

dituzten gaiekiko ahaldunduta ateratzeko. Ikastaroan ikasi dituzten gatazka batzuei aurre egiteko neurriak aztertu eta hartu ahal izango dituzte, eta ikasturtea bukatu ondoren ere gai horietan aritzeko bideak ezagutuko dituzte.

- 7. fitxan ikasleek ezagutza eta inspirazio gehiago lor ditzakete euren ekintzak antolatu eta martxan jartzeko, CHANGE Environment ikastaroan landutako gaietan adituak diren pertsona ekintzaileak ezagututa.
- 8. Fitxan ikasleak beren «ekintza» planifikatzen hasten dira, dela sentsibilizazio-kanpaina bat, dela ikerketa-lan bat edo beste jardueraren bat.
- Irakasleek CHANGE Environment proiektuaren arduradunarekin harremanetan jarri beharko dute, ikasturteko etapa hau antolatzeko laguntza eskuratzeko.

Eskerrik asko eta zorte on!